



ESKOLA TXIKIETAKO ETORKIZUNA KOLOKAN

Eusko Jaurlaritzak ez du Larraul eta beste hiru Eskola Txikirekin hitzartutakoa bete; «arautegi propioa» eskatzen dute »4

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2009-12-16**

VILURTEA 1.583 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

ELKARTASUNA MADRILEN

'EGUNKARIA AUZIA' Auziaren artxiboa eskatu zuen Carballo fiskalak ez die galderarik egin auzipetuei

EZOHIKO BILKURA 'Euskaldunon Egunkaria'-ren eta auzipetuen aldeko mozioa onartu zuen Udaltzatzak 7



Martxelo Otamendi eta beste lau auzipetuei babesa adierazteko asmoz, alor desberdinek osatutako 30 laguneko taldea abiatu zen atzo Madrilera. HITZA

Txosnen ordenantza berria onartu dute


IBARRA Arauaren behin betiko onarpenaren alde bozkatu zuen Udaltzatzak, aho batez 6

Merkatu Txikian bildutako dirua Indiara eta Saharara bideratuko dute

TOLOSA Hilaren 26tik urtarillaren 5era izango da Laskorainen ekimena 2

Sinatu gabe utzi dituzte AHTren lur desjabetzeen aktak

ALEGIA Udaletxea itxita topatu zuten Espainiako Sustapen Ministerioako ordezkariak 3



ONDDOROCK musika jaialdirako sarrera pareia

Abenduak 19 • Larunbata
22:00etan
Villabonako pilotalekuan



sarrerak

TOLOSAKO ORFEOIA
Gabonetako kontzertua

Abenduak 23 • Asteazkena
20:30ean
Leidor aretoan



TXOKOA hitza

sarrerak eskuratzeko deitu 943-65 56 95 telefono zenbakira



MARTXELO OTAMENDI

kazetariarekin
elkarrizketa digitala

Bidali zure galdera
tolosaldean@tolosaldecohitzza.info
helbidera

HITZAren erredakzioan izango da zuzenean
zuen galderak erantzuteko.
Aurrez ere zuen galderak bidali ditzakezue
gure webgunean.

www.tolosaldecohitzza.info



Astelehena
abenduak 21
12:00etan

webgunean

Merkatu Txikia Indian eta Saharan hezkuntza proiektuak bultzatzeko

Elkartasuna » Abenduaren 26tik urtarrilaren 5era bitarte izango da Laskorain ikastolak bultzaturiko ekimena, Kultur Etxean.

INIGO TERRADILLOS

Arropa, jostailuak, liburuak, etxe-tresnak... denetarik topatu ahalko da Kultur Etxean Laskorain ikastolak jarriko duen Merkatu Txikian, hilaren 26tik urtarrilaren 5era bitarte. Elkartasunarekin hertsiki lotura izateak egiten du berezi ekimen hau, izan ere, bertan ateratzen duten diruarekin garatzeko bidean diren herrialdeetan kokaturiko bi proiektu lagunduko dituzte. Merkaturako atea zabaltzeko aurretik, ordea, gaur hasiko dira salteko materiala biltzen.

Hamalagarren urtez antolatuta du aurtengo Tolosako ikastolak Merkatu Txikia. Ikasleak «baloretan hezi eta inguruan ditugun arazo sozialetara gerturatzeko» lantzen duten ekimenetako bat da. Honen helburuetako bat «balioetan, jarreran, emozioetan eta portaeran eragitea» dela azaltzen du ikastolako hezkuntza komunitateak, «errespetua, giza eskubideak edota elkarrikeria bezalako balioak landuz». Baina, ez soilik ikasleengan, ekimenaren parte hartuko duten herritar guztiengan ere zabaltzen baitira balore horiek.



Merkatu Txikia ohi bezala Kultur Etxean jarriko dute. ESTI EZEIZA

Indiaren eta Sahararen alde

Merkatu Txikiaren helburu nagusia bertan lortutakoarekin herrialde txiroei laguntzea da. Aurtengo Indiako eta Saharako proiektuetara bideratuko dute dirua.

Batetik, «ikastolako ikasle ohien proposamena aintzat hartuta», Indiako ipar-mendebaldeko Sanand herrian zentro soziokulturala eraikitzen lagunduko dute. Lurralde horretan, gizonezkoen %80 dago alfabetatua eta emakumezkoen %58 soilik. Proiektu honekin, ikasleak biltzeko gune bat izateaz gain, emakumeek euren arazoez eta irtenbideez hitz egiteko lekua izango lukete. Halaber, mailen arabera eskolak eman nahi dituzte, haurrak txertatzeko gune egokia edu-

kitzeko eta kultur jarduerak burutzeko. Bestalde, ateratzen dituzten ekoizkinak negoziatu ahalko dituzte, eta salerosteko toki finkoa eduki. Bi urtetan garatuko dute zentroaren proiektua Ibarrik misio taldeak eta Vedruna Seva Sozietate elkarteak elkarlanean.

Lagunduko duten bigarren proiektua Sahara askeko Meheriz herrian kokatzen da. Bertan, Lehen Hezkuntzako ikastetxe baten eraikuntzarako eta ekipamendurako erabiliko dute bildutako dirua. Gazteei hezkuntza bermatzea du helburu, gero hauek goi mailako ikasketak egin ditzaten. Tolosaldea Sahararekin elkarrekin kide-ekin dute proiektuaren jarraitapena.

Material bilketa gaurtik abian

Merkatu Txikia hilaren 26an zabalduko dute Kultur Etxean. Baina, aurretik, bertan salgai jartzeko materiala bilduko dute. Hain zuzen ere, gaurtik hilaren 22ra egingo dute 18:00etatik 19:00etara, Laskorain ikastolan eta Plaza Zaharreko Erretengibel lokalean. Hilaren 23an ere Kultur Etxera eraman ahalko du lagundu nahi duen orok materiala, eta salmenta egunetan ere egin ahalko da.

Halaber, aurreko urteetan bezala, aurtengo ere, Emaus erakundearen parte-hartzea izango dute, eta altxariak, armairuak, sofak eta bestelako altxariak biltzeko aukera izango da. Altxariak eman nahi izanez gero, 943 45 98 74 telefono zenbakia deitu behar da.

Lemarekin bat egiteko gonbita

Aurreko urteetan tolosarrendak jasotako laguntza eskertu nahi du Laskorain ikastolak, eta aurtengo ere «eskuzabaltasuna eta esker ona» erakutsiko dutela herritarrek espero dute. Hala, «tolosar orori, eta bereziki, dendariei, tabernari, finantza erakundeek...» *Bi mundu, helburu bat* lemarekin bat egiteko eskatzen diete, «euren helburua betetzea posible izan dadin ezinbestekoa baita». Edozein zailantzetarako 943 67 44 28, 943 69 71 22 eta 635 71 66 17 telefono zenbakiak jarri dituzte herritar guztien eskura.

Munillaren izendapena salatu du Gipuzkoako Elizbarrutiak

Erlizjioa » Gotzain berriaren izendatzea gaitzesten duen agiria eskualdeko hamabi parrokok sinatu dute.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako parrokoen %77k Jose Ignacio Munilla gotzain izendatzearekin ez dagoela ados esan du. Atzo aurkeztu zuten «gehiengo zabal baten desadostasuna eta gaitzespena» adierazten duen idatzia. 110 erretoretatik 85ek sinatu dute oharra. «Saminez eta kezka handiz» hartu dute Munillaren izendapena Gipuzkoako Eliza zuzentzeko, eta bera izendatzeko «azpi-asmoa eta prozedura salatu» dute. «Deitoratu egiten dugu hain garrantzitsua den arazoa aurrera eramateko Elizbarrutiaren eta beraren erakunde pastoralen sentimena aintzat hartu ez izana».

Tolosaldeari dagokionez, 12 parrokok sinatu dute idatzia: Iñaki Albistur, Jesus Maria Arrieta, Frantzisko Artola, Jose Ignazio Eguzkitza, Daniel Eskisabel, Xabier Iturrioz, Juan Jose Muniain, Pedro Oiarbide, Jesus Maria Olano, Juan Otegi, Jose Maria Regilaga eta Ignazio Zubeldiak.

Laburrak

Tolosa Kantarik deituta, entsegua egingo dute gaur

KULTURA » Tolosa Kantarik antolatuta, kantu entsegua egingo dute gaur, Musika Eskolan, 20:00etatik aurrera. Besteak beste, Eguberrietako kantu batzuk ere entseatuko dituzte. Tolosa Kantari kantu jira hilaren 26an egingo dute.

Laskorainek lider jarraitzen du, irabazi ez arren

KIROLA » Intxaurrendoko Inter taldea izan zuen aurkari iragan larunbatean Laskorain areto futbol taldeak. Banakoarekin amaitu zen norgehiagoka. Horitoxentzat Barriolak sartu zuen gola. Puntu bakarra lortu arren, lider jarraitzen du Laskorainek.

Gabonsariak hartzeko aukera hilaren 21era arte

GIZARTEA » Harizpe jubilatutako elkartean gabonsariak jaso ditzakete bazkideek. Hilaren 21era bitarte egin ahalko dute, 10:30etik 12:30era, Printzipal aretoan, Behe-txan. Gabonsaria jaso ahal izateko bazkide txartela erakutsi beharko da. Hilaren 21etik aurrera ez dituzte gabonsariak banatuko.

Eskualdean Telleriatarren jatorriaz

Kultura » 'Geronimoren ondorengoak' lana aurkeztuko du bihar Mikel Telleriak, Kultur Etxean, 20:30etik aurrera.

I. TERRADILLOS

Telleriatarrek euren jatorria eza-gutzeko aukera ezin hobea dute Mikel Telleriak egin berri duen lanari esker. Tolosan abizen hori daramatenak nola joan diren hedatzen azaltzen du Telleriak *Geronimoren ondorengoak* izeneko lanean. Bihar aurkeztuko du, Kultur Etxean, 20:30ean.

Tolosarrak azaltzen duenez, «Geronimo Telleriaren ondoren-

goak dira Tolosan bizi diren ia Telleria guztiak». Gerra Karlistaren ondoren jaio zela azaltzen du; «kontrabandista izan zen, eta egin zuen diruarekin galdategi bat sortu zuen». Iruran lehendabizi, eta ondoren Tolosan kokatu zen Geronimo, eta hor hasi zen familia hedatzen. «Hain zuzen ere, Telleriatarren hiru adar sortu ziren; nik nire lanean zuhaitz genealogiko osoa sartu dut, hau da, Geronimorekin hasi eta Telleria abizena duen azken tolosarrarekin, aurtengo jaio den Beñatekin, amaitu arte».

Lehen, Goierrin

Beraz, eskualdean Telleria abizena zabaltearen errua Geronimok izan zuen, baina, Tolosaldean bai-



Mikel Telleria. E. EZEIZA

no lehen beste hainbat herritan leku zuen. «Abizenaren lehen eza-gutza Lazaro Telleriarena dugu, XVI. mendearen bukaeran, Zerain eta Mutiloa inguruan, eta hortik hasi zen beste lekuetara zabal-

tzen». Abizenaren esanahia, armairiak edota ereserkia bezalakoak topatu ahalko dira lan honetan. Udaleko Artxiboan utzi du Mikel Telleriak herritar ororen eskura.

Herria eraiki dutenak gogoan

Telleriatarren ingurukoa ez da, ordea, esku artean duen lan bakarra. Izan ere, urtarileko lehen astean *Tolosa egin dugun tolosarrok* izeneko aurkeztuko du. «Herrian zerbait egin dutenak bildu nahi izan ditut, denera 1.800 biografia inguru», azaltzen du Telleriak. Tolosako historia ere sartu du Elosegiren lanean oinarrituz, eta beste hainbat datu ere bai, tartean herria aldatuz nola joan den erakusten duten planoak.

@ 'Zurea da hitza'. Zure inguruko berriak sartzeko aukera duzu gure webgunean *Zurea da hitza* izeneko atalean. Berriaz gain, argazkiak sartzeko aukera ere baduzu, eta lehendik sartuta daudenen iritziak ere irakurri ditzakezu: www.tolosaldekohitza.info

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

KEY-LAN
Sarraigintza

Nafarroa etorb. 13 beheko - TOLOSA
Mug.: 670 41 79 22
Tel./Fax: 943 65 03 13



Furgoneta zuri batean sartuta alde egin zuten udaletxe aurretik Sustapen Ministerioi ordezkariek. I. GARCIA

Bertan behera utzi dituzte AHTren inguruko lur desjabetzeen akta sinaketak

Alegia » Udaletxea itxita zegoen eta aurpegia ezkutatzen zuten Sustapen Ministerioi ordezkariek alde egin zuten.

IMANOL GARCIA

Espainiako Sustapen Ministerioi ordezkariek atzo goizean Alegiako udaletxera joan ziren, baina bertako ateak itxita zeudenez, bertan behera utzi zuten egin nahi zuten AHTren inguruko lurren desjabetzen akta sinaketa. 20 lagun inguruk elkarretaratzea egin zuten eta Sustapen Ministerioi ordezkariek azaldu zirenean horien eta

AHTren aurkako oihuak bota zituzten. Ertzaintzak eta bizkartzaien babestuta eta aurpegia estalita zutela agertu ziren Sustapeneko ordezkariek.

Udaletxearen arkupea zinta zurigorritz hesituta zegoen, ez pasatzeko eskatuz eta alegiarren %95ak AHTri ezezkoa esan ziote la gogoratu. AHT Gelditu! Elkarlanetik azaldu dutenez, Alegiako lurjabeek ez zuten asmorik aktak sinatzeko eta Sustapen Ministerioi informazioa eskatu nahi zieten proiektuaren inguruan.

Alegiako Udala AHTren aurka agertu da beste behin. Alde batetik, «herri galdeketa herriaren %95a aurka azaldu zelako eta iritzi

hori aurrera eramango dugulako», azaldu du Aitor Sarasola alkateak. Bestetik, proiektuaren inguruan dagoen «informazio falta eta prozedura egin diren irregulartasunak» salatu ditu Udalak. «Oraindik proiektu konstruktiboa ez dugu jaso», dio Sarasolak. «Osoko bilkura batean urgentziaz bidaltzeko eskaria egin zitzaion Eusko Jaurlaritzari eta ez dugu erantzunik izan. Alegazioak behar bezala jaritzeko aukerarik ez dugu izan. Proiektu basikoa eta gero, desjabetu nahi dituzten lurren zerrendak eta akta sinaketa egiteko deialdia bakarrik bidali dute».

Elkarretaratze burrunbatsua

Gaur Tolosako udaletxearen lur desjabetzen aktak sinatzera deituta daude zenbait lurjabe. 08:30ean elkarretaratzea deitu du udaletxe aurrean AHT Gelditu! Elkarlanetik eta 11:00etan elkarretaratze burrunbatsua egingo duteleku berdinan.



Larunbatean bideo emanaldia izan zuten Aldaban. HITZA

«Oso pozik» asteburu kulturalarekin

ERREDAKZIOA

Aldabako Intxur Auzo Elkartekoak «oso pozik» daude pasatu berri den lehenengo Asteburu Kulturalarekin. Xabier Peñalberren hitzaldiarekin hasi ziren ostiralean ekitaldiak. Intxurreko kastroari buruz aritu zen ordu eta erdiz 30 lagun aurrean. Aldabako bizilagunak gain, Tolosakoak eta Albizturkoak ere izan ziren. «Oso argi azaldu zigun Intxurreko kastroari buruzkoak eta Anoetan dagoen Basagain kastroarekin alderatu zituen», azaldu dute elkartetik. «Galderak egiteko eskatu zuen eta

oso atsegina izan zen», gaineratu dute.

Larunbatean gaztain jatea eta Landa Eremuko Emakumei buruz egin den bideoa ikusi ahal izan zuten. Bideo horretan Aldabako, Urkizuko eta Bedaioko emakumeak elkarriketatu zituzten. Ekitaldian 30 lagun inguru izan ziren. Iganderako aurreikusitako Intxurre kastroa joateko ibilaldia bertan behera utzi zuten eguraldi txarra iragarrita zegoelako. Uda-berrian antolatuko dute berriz. Elkarteen asmoa ibilaldira adin ezberdinetakoak joatea da.

Laburrak

Udalak herri batzarra deitu du biharko Liburutegian

IKAZTEGIETIA » Udalak herri batzarra deitu du biharko, 21:00etan, Liburutegian. Bertan ondorengo gaiak jorratuko dituzte: 2010eko aurrekontuak; ura eta ur zerbitzuak; Zapteroren bigarren laguntza; eta galdetu edota argitu daitezkeen beste gaiak: balioanizdun eraikin berria, arauak, eskolako handitze proiektua...

Olentzerotan Jakinminezi hasiera emango diote gaur

ALTZO » XIII. Olentzerotan Jakinminez egitasmoari hasiera emango diote gaur. Larunbata arte iraungo dute ekitaldiak. Gaurkoan Patxi Azpiroz mendizalea Gipuzkoan zehar bere liburuari buruz ariko da, 19:30ean, udaletxeko ekintza eta batzar aretoan. Liburuan herrialdeko 161 paseo eta ibilbide jasotzen dira.

Egunkaria libre!

munduan libre bizi ahal izateko **Egunkaria** libre munduan bizi ahal izateko

manifestazio nazionala

Abenduak 19, larunbata
17:00etan Bilboko Autonomia kaletik

munduan libre bizi ahal izateko **Egunkaria** libre munduan bizi ahal izateko

libre!

munduan libre bizi ahal izateko **Egunkaria** libre munduan bizi ahal izateko

Abenduaren 19an
Egunkaria libre!
Manifestazio Nazionala Bilbon

Autobuserako txartelak salgai (10€)
Tolosan: Hitzan, Galtzaundin, Rakun eta Denak tabernan
Villabonan: Ogi-goxon
Asteasun: Patxinen

Abenduaren 15ean
konzentrazioa
arratsaldeko 20:00etan
Triangulon.

www.egunkaria.info

Eskola Txikietako irakasle, guraso eta ikasleak, haserre

Hezkuntza » Eusko Jaurlaritzak ez du bete Larraul eta beste hiru eskolekin hitzartutakoa; arautegi propioa nahi dute.

ERREDAKZIOA

Haserre agertu ziren atzokoan Donostian egindako agerraldian Eskola Txikietako irakasle, guraso zein ikasleak. Tartean ziren baita eskualdeko hainbat Eskola Txikietako ordezkari ere, Larraulgoa, Ikaztegietakoa eta Altxokoa, bes-teren artean. Gogoratu behar da Eskola Txikien 2010. urteko jaia Altxok antolatuko duela.

Eskola txikietako arduradunak beldur dira, izan ere Eusko Jaurlaritzak ez ditu bete Larraul, Zubietta, Itziar eta Olaberriako Eskola Txikiek hitzartutako akordioak eta beraz, gainontzekoekin gauza bera gertatu daitekeela uste dute.

Era berean, 2003. urtean Eusko Jaurlaritzak eratutako Eskola Txikietako Batzorde Nagusia ekarri zuten gogora. Bertan erakunde desberdinak aritzen ziren, baina egun «batzordea hau indarra galdua» dagoela salatu zuten. «Berriro ere gaia bideratzeko eta kezkek eta beharrak dagozkion lekuan aztertze bidean batzordea berregituratzea eskatu nahi dugu, eta bertan, Eskola Txikien status berezia

onartzea eta arautegi propioa eratzea», eskatu zuten.

Lorpen ugari

Atzoko agerraldian, Eskola Txikiek azken urteetan egindako lana ere nabarmendu zuten. «87-88 ikasturtean gure eskoletako duintasuna eta abantaila ezagutarazten hasi eta gaur egun arte elkarlanean jarraitzen dugu, momentuko irakaskuntzaren beharrei erantzunez noski, etengabeko formazioa, koordinazioa, ikasleen arteko harremana eta eragileen arteko komunikazioa bideratuz, Eskola Txikietako ikasleei kalitatezko hezkuntza ziurtatuz», argitu zuten. Horiek horrela, 1993. urtean



Pasa den ekainean Berrobin egin zuten Eskola Txikien festa. HITZA

sortutako Eskola Txikietako Gurasoen koordinakundea ekarri zuten gogora, eta baita Eskola Mapa ere. Dekretu honetan lehendabizikoz aipatzen dituzte Eskola Txikiak bereziki nabarmenduta eta atzoko agerraldian «bere horretan ezartzea» eskatu zuten. «Ilusioz eta gogoz ari diren eskolei lanean jarraitzeko aukera ematea, baliabidea eskainiz eta ez murriztuz» ere eskatu zuten.

Bukatzeko etorkizunerako zer nahi duten ere argitu zuten: «Egun dauden Eskola Txikien mantentzea eta handitzea eskatzen dugu. Eskola Mapan gure berezitasunak

adierazi eta kontutan hartzea. Herri txiki guztietan, auzoetan, 0-3 urte bitarteko eskaintza zabaldu nahi dugu. Irakasleen egonkortasunari irtenbideak bilatu eta martxan jarri nahi ditugu. Eskola txikien arteko harremanak sendotu eta elkarren arteko proiektuak garatu nahi ditugu. Eskola txikien abantailak gizarteratu nahi ditugu. Eta bukatzeko, eskola zabaldu nahi duten herriei laguntza eskaini nahi diegu».

Bukatzeko hezkuntzaren helburuak nabarmendu zituzten: «Izaten ikasi, elkar bizi, egin, ikasi eta ekitea».

ekar
gure gomendioa

NIK ZURI
ZUK NIRI
KULTURA
OPARI



IZAN BAININTZEN NAFARROAND ERREGE
Argemiro Gofitxak



EZ NAIZ SIRENA BAT ETA ZER?
Koldo Aguirre - Eider Elizar



ANE PIRATA
Pirata, Pirata eta Mutilakozak



MUSIKA AURREAN
Karmela Jai



EZEIKIEL
Joaquín Chavira



LONDRES KARTOZKORIA DA
Londres Kartozkoria

Eskuratu
ko Bertsolari Txapelketa
Nagusiko **DVDa**
berria rekin



gogoratu noiznahi historia egin duen txapelketa


ABENDUAREN 24TIK AURRERA,
zure kioskoan



+ 12 €

Baduzu zer oparitu
Gabon hauetan!

Aukera ezazu,
BIZI euskaraz
berria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

GipuzkoaKultura

"GipuzkoaKultura" telebista saioak, gure inguruan daukagun kultura ekarriko digu etxera, bizirik dagoena eta bidez ere, gertuko eta egunerokoa."

"El programa televisivo "GipuzkoaKultura" nos acercará a nuestra cultura, una cultura viva y, ante todo, cercana y cotidiana."

"L'émission de télévision « GipuzkoaKultura » nous permettra d'approcher notre culture, une culture vivante mais surtout proche et quotidienne."

Gipuzkoa2.0
KULTURA EKARRIKORRA, JORRIKORRA
WWW.GIPUZKOA2.NET

"Euskal kulturaren erabilerak guztion ohitura izatea helburu duen bide orria."

"La hoja de ruta que quiere convertir en costumbre cotidiana el uso de la cultura vasca."

"La feuille de route qui veut changer en coutume quotidienne l'usage de la culture basque."



Golea telebista

Osteguna, 22:15etan.

Goierrri telebista

Osteguna, 22:30etan.

28 kanala

Osteguna, 22:00etan.

Erio telebista

Osteguna, 22:00etan.

zure, gure, denon TB saioa.

www.gipuzkoakultura.net

www.tokiko.tv

GIPUZKOA | KULTURA ETA EUSKARA
DEPARTAMENTUA
zurekin, gurekin.

Txosnen ordenantza berria onartu dute, aho batez

Ibarra » Ezker abertzaleak eginiko alegazioak ez zituzten eztabaidatu «denboraz kanpo» aurkeztu zirela argudiatuta.

NOELIA LATABURU

Motz jo zuen atzo goizean Ibarra-ko Udalaren ohiko bilkurak. Ezustekorik gabe, eguneko gai-zerrendaren barruan aurkeztutako puntuak onartu zituen Udalbatzak, gaztelania hutsean, hori bai.

Lehen puntuan, jaietan eta bestelako ospakizunetan txosnak jartzea arautuko duen ordenantza-aren behin betiko onarpenaren alde bozkatu zuten, aho batez. Bide beretik joan zen Udalak ematen diuen diru laguntzak arautzeko ordenantza bozkatu zutenean, hau ere aho batez onartu zutelarik. Hirugarren puntu bat ere onartu zuten, 6/2009 kreditu aldagetakarena, hain zuzen. Puntu hau ere onartu egin zen, Ezker Batuaren abstentzioarekin.

Alegazioak ez ziren eztabaidatu

Txosnen eta diru laguntzen ordenantzen inguruko alegazioak sartu ziren, baina hauek ez ziren eztabaidatu ere egin, «denboraz kanpo egin» zirela argudiatuta.

Herriarrentzat pleno aretoan dauden eserlekuetan ezker abertzaleko kideak eseri ziren. Galdera eskarien garaia heldu zenean, Iba-

rrako alkateari, Txelo Romeori, alegazioen inguruan galdetu zioten. Alkateak «bilkuraren ondoren erantzutako ditugu» esan zuen. Ezker abertzaleko kideek «alegazioak aurretik eztabaidatzeko» sar-tzen direla erantzun zioten. «Beste behin ere, sudur puntan jartzen zaizuen ari zarete», salatu zuten eta «inorekin ez duzue hitz egin», gaineratu zuten.

«Ez dut ulertzen zergatik eztabaidatu behar den»

Ezker abertzaleko kideek «aurrez ere txosnen inguruko ordenantza bazegoela» gogoratu zutenean ordenantza berria «zabalagoa» dela erantzun zuen Romeok: «Ez dut ulertzen zergatik eztabaidatu behar den hain erraza den zerbait», esan zuen amaitezko.

Ildo horretan, ordenantza hau «jarduera hau arautu eta bere funtzionamendu egokia bermatzeko lege-dokumentu bat sortzeko» adostu zutelagoratu zuen Txelo Romeok.

Udalbatzaren jarreraren aurka gogor egin zuten ezker abertzaleko kideek eta euren egonezina azaldu nahi izan zioten alkateari berari. «Lau miserable zarete zuek, Alderdien Legearen aurka zaudetela diozue baina hau baliatzen duzue nahi duzuen egiteko, ez duzue inorekin hitz egin, ez diozue inori deitu eta egiten duzuen Alderdien Legeari esker egiten duzue, azalpenik eman gabe», baieztatu zuten.

» OHIKO BILKURA

Gai-zerrenda

■ **Txosnak.** Ibarra herriko jaietan eta bestelakoetan txosnak jartzea arautuko duen ordenantza behin betiko onartu zuten, aho batez. Helburua, «jarduera hau arautu eta bere funtzionamendu egokia bermatzeko lege-dokumentu bat sortzea» izan da.

■ **Diru laguntzak.** Ibarra Udalak ematen diuen diru laguntzak arautzeko ordenantza behin betiko onartu zuten, aho batez.

■ **Kreditua.** 6/2009 Kreditu aldageta, Kreditu Transferentzien modalitatea onartu zen, EB abstentitu egin zelarik.

Alegazioak

■ Ez ziren eztabaidatu, denboraz kanpo aurkeztu zirela argudiatuta.

Txosnen ordenantza-aren hainbat oinarri

■ Udalak zehaztutako tokietan kokatu ahal izango da edota, lur-eremu partikularren kasuan, jabearen baimena aurkeztu beharko da udal-instantzian.

■ San Bartolome plazan, gehienez, bost txosna jarri ahal izango dira, ilaran jarri beharko dira.

■ Egoitza soziala herrian duten «erakunde legeztatuek» bakarrik jarriko dituzte, eskaera egin baino lehen 2 urtez herrian jarduerak egin badituzte. Izaera sindikal edo politikokoak kanpo geratzen dira.

■ Baldintza tekniko zein garbitasun-baldintzak bete behar dira; bizi-lagunei eragozpenik ez zaie sortuko.

■ Edateko ur korrontea eduki eta hustubideak estolderia sarearekin modu egokian konektatuta egon behar dute.

■ Adin txikiak alkohola eta tabakoa saltzea debekatuta dago; 16 urte azpikoek ezingo dute ez txosna barruan egon ez eta lan egin.

■ Kirol zein kultura-izaera edota izaera soziala duten proiektuak finantzatzeko dirua biltzea izango da helburua.

■ Faltak arin, larri eta oso larrietan banatuko dira; guztiak dagokien zigorra izango dute.



Tarragonatik Plazaola ezagutzera

LEITZA » Joan den astean Tarragonako Terra alta eskualdeko alkate, enpresari eta tokiko garapen agente talde bat Nafarroara etorri zen. Zonalde honetan, Plazaola Partzuergo Turistikoak natur bidearen inguruan egindako sustapen ekonomikoa eta produktu turistikoaren garapena ezagutu zuten. Leitzako udal ordezkariak bildu ondoren, Uitziko tuneleko lanak, geltokia, Mendukilo kobak eta Peru-harri parkea bisitatu zituzten. Ingurugiroaren alde instituzioek egindako apustuaz gain, herriko ondare-ei buruz entzundako hitz «gogotsuak» azpimarratu zituzten. HITZA

Plazaldeko gazteen binakako txapelketako finala, igandean

Ibarra » Sendi-Ekintza elkartearen afaria izango da gauean; izena bihar arte eman daiteke Atari tabernan.

ERREDAKZIOA

Igande honetan Plazaldeko gazte-ekurtero antolatzen duten binakako txapelketako finala jokatu dute, Belabieta kiroldegian. Aurrez aurre Atxuk eta Gorkak osatutako bikotea eta Harkaitzek eta Murraik osatutakoa izango dira. Hitzordua, 17:30etik aurrera izango da, Belabieta kiroldegian.

Pasa den irailean ekin zioten txapelketari 32 lagunek, hau da, 16 bikote. Txapelketari behar bezalako amaiera emateko gauean Sendi-Ekintza elkartearen afaria egingo dute. Parte-hartzea guztiontzat zabalik dago, baina aurrez izena eman beharko da Atari tabernan. Horretarako azken eguna bihar izango da.

Ibarra emakumezko sokatiralariek azken postuan geratu dira

ERREDAKZIOA

Pasa den asteburuan Lauko Euskadiko Sokatira Txapelketako bosgarren saioa jokatu zuten, Oiartzunen. Emakumezkoen 255 kiloko eta gizonezkoen 300 kiloko bigarren eta sailkapeneko azken jardunaldia izan zen.

Ibarra kiroldegian bertan izan ziren. Emakumezkoen A multzoan Gasteizko Badaioz taldea izan zen garaile, Ibarra A taldeak bosgarren egin zutelarik. B multzoko saioko sailkapenean ere Badaioz izan zen irabazle. Ibarra ordezkariak ere izan zen talde honetan eta laugarren postua eskuratu zuten. Emakumezkoen 255 kiloko sailkapen orokorreko A eta B multzoan Ibarra taldeak bosgarren dira.

Gizonezkoen 300 kilokoetan hirugarren egin zuten euren txandean. Sailkapen orokorrean, berriz, bigarren dira ibartarrak, Amañur nafarren atzetik.



Aho batez onartu zituzten txosnen eta diru laguntzen ordenantzak. N. LATABURU

Hilberria

MATIAS TELLERIA IRASTORZA

-Goian bego-

Hainbeste maite genuen aitona joan zaigu ondotik baina zure erakutsiak eta irrifarra bihotzean izango ditugu beti.

Zure bilobak: Maddi eta Joseba

Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela GAUR, ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN MIKEL GOIANGERUAREN parroki elizan, gorpua aurrean dela egingo den hileta-elizkizunera. Eskerrik asko guztioi aldeaz aurretik.




GAINTZA
2009ko
abenduen 16a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAk Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Epaiketako lehen egunean fiskalak ez die bost auzipetuei ezer galdetu

'Egunkaria auzia' »

Tolosako Udalak, ezohiko bilkuran, auzipetuen aldeko mozioa onartu zuen atzo.

ASIER IMAZ

Euskaldunon Egunkaria-ko bost langile ohien aurkako epaiketa atzo hasi zen Espainiako Auzitegi Nazionalan.

Auzipetuei ETako kide izatea leporatzen zaie. Herri akusazioak, AVTk eta Dignidad y Justicia-k, guztira 70 urteko espetxe zigorra eskatzen du.

Fiskaltzak ekainaren 23an kasuaren artxiboa eskatu zuen, delitu zantzurik aurkitzen ez zuela argudiatuta. Epaiaketaren lehen egunean, atzo, Miguel Angel Carballo



Egunkariaren Aldeko Batzordeak elkarretaratzea egin zuen atzo Tolosan. A.L.

fiskalak euskal herritarrei ez zien galderarik egin.

Íñaki Uri auzipetua izan zen deklaratzeko lehena, 10:35ean. On-

doren Oleagaren, Otamendiren, Torrealdairen eta bukatzeko, 20:00etan, Auzmendiren txanda iritsi zen. Bostek euren abokatuen

galderak bakarrik erantzun zituzten, ETa Egunkaria-ren sorreran parte hartzerik ez zuela izan esateko. Herri akusazioaren galderak erantzunik gabe gelditu ziren.

Tolosako Udalaren mozioa

Ezohiko bilkura burutu zen atzo udaletxean. PSOEren bi zinegotziek abstentzioaren alde egin zuten. PPren ordezkariak ez zen aurkeztu eta gainontzeko alderdiek aldeko bozka eman zuten. Ondorioz, Euskaldunon Egunkaria-ren eta auzipetuen aldeko mozioa onartu zen.

Udalak Egunkaria ixtea eta Otamendi eta beste lau inputatuak epaitzea arbuiaitu zituen: «Adierazpen askatasunaren ukazioa eta informazio pluraltasunaren aurkako eraso delako». «Euskararen eta, oro har, euskal kulturaren aur-

OTAMENDIREN DEKLARAZIOA

Íñigo Iruin abokatuaren galderei erantzun zien Otamendik atzo. 'Berria'-ko zuzendaria zela azaldu zuen, aurrez 'Egunkaria'-koa, 1993tik 2003ra. ETBn, Euskadi Irratian eta 'Egin'-en ere lan egina dela aipatu zuen.

Ahotsa eteten zitzaiola, abxilotu ondorengo bost egunetan torturatua izan zela salatu zuen. Hiru egunez zutik eduki zutela etengabe, paretaren kontra, eseri edo lo egiteko aukerarik gabe. Egun horietan ia bere burua zauritzera iritsi zela ere onartu zuen atzo Otamendik.

kako eroso argia delako» eta «auzipetu batzuk torturatu izana erabat onartezina delako».

Elkarretaratzea

Egunkariaren Aldeko Batzordeak elkarretaratzea egin zuen atzo Triangulon. Egunkaria libre! lelopean 200 bat lagun elkartu ziren; «auzia salatzen eta auzipetuei elkartasuna azaltzeko».

Distantzia gertu

» Kronika

Eihartze Aramendia

Ordu txikieta ordu txikietak. 03:45. Donostia abiapuntu, eta Madril helburu. Pixkanaka jendea batzen, pixkanaka indarra batzen eta babesa handitzen. «Madril hemendik 500 kilometro ingurura dago, baina, distantzia kulturala eta ideologikoa hori baino askoz handiagoa da», aipatu zuen ez asko Xabier Oleagak.

Atzokoan, ordea, 500 kilometro inguruko distantzia hori, besarkada kementsu bilakatu zen euren inguruan.

Orduak aurrera, kilometroak murriztuz. Eguzkiaren lehen printzak lotsati, «egunsenti ederra» Joan Mari Irigoienek ausarki. Eguentsi arrunt polita, bai, baina hotz. Madrilerira iritsi eta ongietorria, ongietorri hotza: polizia nazionalak zebrabidea pasatzea debekatu zioten babes taldekoei. «Non dira inputatuak?», galdetu

zuen polizia batek. Guztia dakiten horiei ere informazioak ihes egiten die zenbaitetan, edo ziurrenik ez...

Epaiaketa hasteko hoge minutu besterik ez, eta Auzitegi Nazionaletik metro gutxira, Madril osoan zegoen mugimendurik handiena. Íñaki Uri, Joan Mari Torrealda, Martxelo Otamendi, Xabier Oleaga eta Txema Auzmendi ia ez ziren ikusi ere egiten, Euskal Herriatik etorritako babes taldeak inguratzeko ordezkariek, sindikatue-

takoak eta alderdietakoak. Kataluniatik etorritakoak ere izan ziren, ERCko gazteak, hain justu. Goizeko ordubetetan abiatu ziren Barzelonatik, eta Madril, Iratzarri Aralarko gazteekin batera «Llibertat d'Expressio. Adierazpen askatasuna» jartzen zuen pankarta eutsi zuten gogoz.

Auzitegi barrura sartzeko ordua iritsi zen. «Lasai ikusi ditut, oso sereno», aipatu zuen Joanmari Larraitek. Askok sartu nahi, baina ezin, denentzat tokirik ez.

«Kanpoan zaudetenok, orain, zuen nortasun agiria eman behar didazue», agindu zuen polizia batek. Jendea amorraturik, agindu

hori nondik nora zetorren ulertu ezinik. «Eta zergatik identifikatuko gaituzue? Guk ez dugu ezer egin, kalean gauden beste edozein herritar gara ez duzue hori egiteko eskubiderik», kexatu zen babes taldeko bat. Poliziak azkar asko erantzun zuen: «Baimendurik ez zegoen elkarretaratze bat egin duzue». Elkarretaratze bat? Baimendu gabe, gainera? Harrigarria. Behatz puntak izozteraino eduki zuten zain jendea, karneta noiz itzuliko zain. Zer gertatuko zain, Euskal Herrira itzultzeko garaia.

Madril 500 kilometro dago, baina, distantzia kulturala eta ideologikoa hori baino handiagoa da.



harpidedun izateak badu saria

① Erosketa balea


Ixabel oinetakoak dendan gastatzeko 100 € ko balea



lurre auzoa 16
943 670 277

② Haur literatur liburu sorta

Ibaizabal argitaletxearen eskutik, 4 haur literatur liburu osaturiko sorta



③ Diskoa

Ken Zazpi taldearen "Ken Zazpi urte zuzenean" 2 CD-DVD, bi harpidedunentzat



④ HITZA materiala

HITZAren material sorta ederra



Parte hartzeko deitu edo idatzi: 902-82 02 40 / txokoa@hitza.info [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adieraziz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunean, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen
TXOKOA hitza



3°
2°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	LAINOAK
BEROENA	4°
HOTZENA	0°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Anoeta.** Alkartasuna Biltokian gaur Nagore Franko podologaren bisita izango dute 15:00etan.

■ **Tolosa.** Egunkaria auzia'ren kontra larunbatean Bilbon egingo den manifestaldira joateko autobusak 15:00etan zezen-plazatik abiatuko dira. Txartelak TOLOSALDEKO HITZAN, Galtzaundin, Raku eta Denak tabernetan daude salgai 10 euroren truke. Egunkariaren Aldeko Batzordeak antolatutako ekitaldia da.

■ **Ikaztegieta.** Odol Emaille Elkar-tearen odol ematea 19:00etatik 21:00etara Liburutegian, bihar. Herriar guztiak bertaratzera animatzen dituzte elkarteak kideak.

Oharra

■ **Tolosa.** Asteburuan, hilak 19 eta 20, Usabalgo igerilekuak, bai txikia eta baita handia ere, itxi egingo dituzte klubaren arteko Euskal Herriko Kopa ospatuko delako. Beste instalazio guztiak irekita egongo dira, hidromasajea barne.

Kirola

■ **Tolosa.** Kirol Gala Leidor antzokian 19:00etatik aurrera. Aurten-goan 9 hautagai nagusi daude, norbanakoak eta taldeak kontuan hartuta.

Irteerak

■ **Aduna.** Gabonetako irteerak hilaren 16tik 21era goizeetan Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak antolatuta. Hilaren 29an: Txuri urdinera joango dira 11:00etatik 14:00etara; eta urtarriaren 4ean

Donostiako Pin parkera joango dira 10:00etatik 13:30etara. Izena hilak 21 baino lehen eman behar da Aiztondoko bulegoetan (943 693930).

Tailerrak

■ **Zizurkil.** Kontu kontari eta *Naturako izaki magikoak* izeneko tailerra Zizurkileko Iriarte Etxean 17:00etan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

TELEBISTA

28 Kanala

08:30. Ur eta lur. **09:00.** Alex eta Alexix. **09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** Kalekanto. **10:30.** Ilunpean. **11:00.** Erloklip. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Ilunpean. **12:30.** Zahar berri. **13:00.** Muka muka. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Kalekanto. **14:30.** Ilunpean. **15:00.** Erloklip. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Klipak. **16:30.** Zahar berri. **17:00.** Muka-muka. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** Kafe t'erd. **18:30.** On eini! **19:00.** Haurrekin jolasean. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Kickboxing. (*16:30etik 20:00etarako blokea 4 orduko errepikatuko da)

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Kaleetan ondo, mendian hobeto

NEGUA ■ Areson eta Leitza atzoko elurak «zuritzeko adina bai, baina errepideak ondo» utzi zituen. Tolosaldeko herrietan antzera. Mendietan elurak gehiago iraun zuen: jolasarako, paseorako edo ikusmirarako.

Horren adibide dira Lizartzako eta Albizturreko argazkiak. Gaur, neguak bere bidea egiten jarraituko du; goizean lainoa eta gauean elurra. Bihar ere eguzkiarentzat ez da tarte handirik izango. A. IMAZ/L. GARZIA

Zure hizkuntza eskubideak ezagutzen dituzu?

Gizarte elebidun honetan, zure zalantzak, galdak eta kezak argitu nahi dizkizugu. Zure eskubideak bermatzeko bitartekotzan egiten dugu lan.

elebide

EUSKO JAURLARITZA **GOBIERNO VASCO**